

Jorge Vega, atleta

“Atletismoan urrutira heldu naiteke”

22 urte besterik ez ditu ermuar gazte honek eta duela gutxi ospatu diren Euskal Herriko atletismo txapelketan luzera jausiko eta saltu hirukoitzeko txapelarekin egin da. Duela 8 urte hasi zen Antonio Cid-ekin lanean eta oraindik gaztea den arren, epe ertainera onenen parean egon daitekeela uste du.

- *Nolatan hasi zinen atletismoan?*

Infantil mailan nengoela, soinketa-ko irakasleak dohai bereziak nituela esan zidan eta Antonio Cid-ekin hasi nintzen lanean.

- *Luzera jausia ala saltu hirukoitza?*

Momentuz biak egiten ditut nahiz eta gure prestakuntza osoa saltu hirukoitzera zuzendua egon.

- *Egunero egiten duzu prestakuntza lana?*

Lehiaketarik ez dudanean astean sei egunez entrenatzen dut. Egunero 3 ordu inguru eta larunbatetan goiz eta arratsaldez.

- *Entrenamenduak burutzeko ez duzue errezasun asko....*

Negu partean Ateneoan aritzen gara eta udaran Eibarko Unben. Egia esan Ermuan ez dugu instalakuntza egokirik.


- *Xerez-ko Chapin taldean ere ari zara....*

Duela hiru urte, Xerez-ko Chapin taldeak fitxatu ninduen eta ondorioz buru belarri ari naiz bertan.

- *Ikasketak alde batera utzi dituzu?*

Momentu honetan bai baina etorkizunean Fisioterapia ikasketak burutu nahi nituzke.

- *Laister Espainiako txapelketara zozaz..*




Bai eta baita Javier Villalobos ere. Euskadiko Txapelketan lortu genuen bertan parte hartzeko txartela.

- *Atletismoaren gailurrean ikusten duzu zure burua ?*

Oraindik gaztea nahiz eta kirol honetan 26-27 urte ingururekin lortzen da heldutasuna. Oraindik asko hobetu beharra daukat.

Asier Ibañeta



ANTONIO CID, Entrenatzailea

“Jorgek izugarrizko dohaiak dauzka”

“Oraindik gaztea bada ere, aurrerakuntza handia eman du azken urteetan. 26 urte izan liteke adin egokia noraino iritsi daitekeen esateko. Etorkizun oparoa izan dezakeela uste dut. Javier Villalobos ere belauneko lesiotik ondo sendatu da eta sasoi onean izango da Espainiako Txapelketan”

- * Errehabilitazio zentrua
- * Kirol medikuntza
- * Zuzpertz funtzionala
- * Ariketaren fisiologia
- * Kirol masaia

Diputazioa 8-10 (ERMUA)



Tel. 943 17 21 12 - 17 21 16 Faxa. 943 17 21 12